

GOIERRIKO ESKUALDEKO TURISMO- JASANGARRITASUNERAKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

AURKIBIDEA

1. ESPARRU OROKORRA: TURISMO JASANGARRIA	3
2. JASANGARRITASUN-ESTRATEGIAK TESTUINGURU GLOBALEAN ETA TOKIKOAN.....	3
3. METODOLOGIA PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO.....	6
4. GJH-EN EKARPENA GOIERRIKO ESKUALDEARI.....	6
4.1. DIAGNOSTIKO-FITXAK.....	9
1. helburua: pobrezia-aren amaiera.....	9
2. helburua: zero gose	10
3. helburua osasuna eta ongizatea	12
4. helburua: kalitateko hezkuntza	14
5. helburua: genero-berdintasuna	15
6. helburua: ur garbia eta saneamendua	16
7. helburua: energia eskuragarria eta ez-kutsakorra	17
8. helburua: lan duina eta hazkuntza ekonomikoa	18
9. helburua: industria, berrikuntza eta azpiegitura	19
10. helburua: desberdintasunen murrizketa	20
12. helburua: hiri eta erkidego jasangarriak	21
12. helburua: ekoizpen eta kontsumo arduratsua	22
13. helburua: klimaren aldeko ekintza	23
15. helburua: lurreko ekosistemen bizitza	24
16. helburua: bakea, justizia eta erakunde sendoak	25
17. helburua: helburuak lortzeko aliantza	26
18. helburua: hizkuntza eta kultura-aniztasuna.....	27
5. PARTE HARTZEKO PROZESUA: ESKUALDEKO ERAGILEEN EKARPENA.....	28
6. TURISMO JASANGARRI BATERAKO ESTRATEGIAK.....	31

1. ESPARRU OROKORRA: TURISMO JASANGARRIA GAUR

Klima-aldaketa egungo ingurumeneko erronka nagusia da. Hari aurre egiteko erantzukizuna ez dagokie soilik gobernuei; erantzukizun globala da, eta, hartan, enpresa pribatuek funtsezko eginkizuna dute, eta turismo-sektoreak ere, natura- eta ondare-baliabideetan eta soziokulturaletan oinarritzen denak, eginkizun protagonista izan behar du. Era berean, erantzukizun hori herritarrei ere badagokie, bai bisitari gisa duten rolean, bai turismoaren anfitrioi gisa dutenean.

Lehen ere jasangarritasuna funtsezko tresnatzat hartzen zen turismo-garapenaren edozein eredutan, eta Turismo Ministerioak SEGITTURen bidez abian jarri zuen turismo-helmuga adimendunaren ereduaren ardatz nagusietako bat zen. Hala, Espainia izan zen munduan turismo-garapenari buruzko honelako eredu eta metodologia bat izan zuen lehen herrialdea: jasangarritasuna, haren alderdi guztietan, edozein turismo-estrategiaren erdigunetzat zuen eredu eta metodologia bat, baita irisgarritasuna ere, teknologiarekin eta berrikuntzarekin konbinatuta, adierazle eta datuetan oinarritutako gobernantza-ereduak abian jartzea lortzeko eta, hala, denboran iraunkorrak diren eta pertsonak eta ingurumena errespetatzen dituzten ereduak izateko eta haiei eusteko.

Turismo arduratsuaren inguruko kudeaketa-, antolamendu- eta inbertsio-aro berri batean gaude eta, hartan, politika publiko berriak behar dira, beharrezkoa den eredu-aldaketa horri laguntzeko. Jarduera garatzen den lurralde bakoitzeko gizarte-, kultura-, ekonomia- eta ingurumen-garapenaren zerbitzura dagoen turismo-eredua. Ingurune kontsumitzaile handia izateko kapital ekologikoaren eta sozialaren sortzaile izatera egingo duen eredu, beste ekoizpen-sektore batzuentzat erreferente izango dena.

EAEko turismo-sektoreak eta, zehatzago esateko, Goierriko eskualdekoak, helmuga hobea eta jasangarriagoa eraikitzen lagundu dezake, Nazio Batuen **2030eko Agendako garapen jasangarrirako helburuekin (GJH)** eta Europar Batasuna buru duten politikekin bat datorrena.

2. JASANGARRITASUN-ESTRATEGIAK TESTUINGURU GLOBALEAN ETA TOKIKOAN

Jasangarritasunarekin bat etortzea estrategia adimenduna da etorkizunari aurre egiteko; onura handiak ekarriko ditu, bai ekonomikoak bai ingurumenekoak, eta aukera emango du pandemiak eragindako atzeraldi ekonomikotik azkarrago suspertzeko. Esperientzia asko erakusten dute apustu hori enpresen garapen ekonomikoan zein biderkatzailea den. Hori dela eta, turismo-sektorea motibatu nahi da klima-aldaketaren aurkako eta aurrezpen energetikorako borroka xede duten suspertze-ekintza guztiak sustatzeko aurrerapausoak ematera.

Une honetan, **Turismo Jasangarriaren** aro berria ireki da, eta haren oinarri izan behar dute helmugan kapital ekologikoa eta soziala errespetatzen eta balioesten dituen ereduak eta sektore publikoaren –maila guztietan– eta pribatuaren arteko kudeaketa eraginkorreko gobernantza-ereduak. Eta eredu horrek, zalantzarik gabe, teknologia integratu beharko du; izan ere, beharrezkoa da jasangarritasun-politikak zuzen aplikatzen ari direlako konfiantza neurtu, kontrolatu eta sortu ahal izateko. Gainera, ahalik eta gehien suspertu beharko du tokiko erkidegoekiko elkarrizketa eta ekoizpen-ekosistema, beharrezkoa den kohesio ekonomikoa eta soziala izateko.

2015. urtea erabakigarria izan zen mundu-garapenerako, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda eta **garapen jasangarrirako helburuak (GJH)** onetsi ondoren. Agenda handi horrek 2030era arteko mundu-esparru bat ezartzen du, muturreko pobreziaarekin amaitzeko, desberdintasunaren aurka borrokatzeko eta klima-aldaketa arintzeko. Milurteko 17 garapen helburu (MGH) historikoetatik abiatuta –lotutako 169 jomugarekin–, pertsonak ditu erdigune eta eraldatzailea, unibertsa eta integratzailea da.

Jomuga horiek betetzeko, gobernuek, sektore pribatuak eta sozietate zibilak erantzukizuna partekatzen dute. Turismo-sektoreak ere errealitate hori bizi du, eta hala adierazi du sarritan **Turismoaren Mundu Erakundeak** (TME). Are gehiago: eredu-aldaketaren buru izan behar du; industria global horri urteetan egotzi izan zaio ekosistemak hondatzearen eta toki-erkidegoetan eragin negatiboa izatearen ardura.

Eta hark eragina du turismo zabalean. 2020an, **Turismoaren eta Landa Garapenaren Urtean**, TMEk esan zuen landa-eremuetan turismoaren jasangarritasuna posible izateko plangintza-estrategia globala eta inklusiboa hartu eta gauzatu beharko dela, eta hark parte hartzeko ikuspegi batean oinarritu behar duela, ekintza ugariarekin eta alde interesdun guztiekin. TMEk Turismoaren eta Landa Garapenari buruz emandako gomendio guztien xedea da gobernuei maila guztietan laguntzea, bai eta sektore pribatuari eta nazioarteko erkidegoari ere, landa-lurraldeetan turismoa sustatzen, garapen inklusiboa, jasangarria eta erresilientea izaten laguntzeko.

Bestalde, Europar Batasunak **Europako Itun Berdea** abiarazi du, jasangarritasunerako trantsizio bat izateko; haren helburua da herrialde kideak klimatikoki neutroagoak izatea 2050. urterako. Horretarako, Europako turismo-sektore osoak neutrala izan beharko du karbonoan data horretan eta, horretarako, haien isuriak kontrolatzeko, murrizteko eta konpentsatzeko toki-mailatik ahalik eta hurbilen dauden neurriak hartu beharko dituzte. Era berean, helburu hori betetzeko, ekonomia zirkularreko, zero hondakineko, efizientzia energetikoko eta energia berriztagarriak erabiltzeko politikak jarri behar dira abian, eta hori guztia, ingurumen-fiskalitatearen baldintzapean; hura zerga-tresna bat da (zergak eta tasak) eta zerga-ordainketa handiagoa eskatuko die ingurumenean inpaktu gehien sortzen duten enpresa eta entitate publikoei.

2021eko maiatzaren 27an, Batasuneko Kontseiluak Europako Batzordearentzako zenbait gomendio argitaratu zituen honako dokumentu honetan: **Europako turismoa datorren hamarkadan: jasangarria, erresilientea, digitala, globala eta soziala.**

Bestalde, 2021eko maiatzean, **G20ak, TMErekin batera, 'Bidaien eta Turismoaren sektorean Ekonomia Berderako Trantsiziorako Gomendioak'** egin zituen. Gomendio horiek, besteak beste, honako hauek dira: mugikortasun segurua, lanpostu eta enpresa turistikoentzako laguntza, etorkizuneko krisialdien aurrean erresilientzia sortzea eta sektorearen eraldaketa ekologikoan aurrera egitea.

Era berean, G20ak konpromisoa hartu zuen sektorearen eraldaketa digitalaren eraldatzea sustatzeko neurriak hartzeko, eta erreferentzia berezia egin zien berrikuntza-aukeretara jotzeko bidea bermatzeari eta turismo-azpiegitura ekologikoetan inbertsio handiagoa sustatzeari.

Bestalde, 2019tik, Espainiako Gobernuak, Turismoaren Estatu Idazkaritzaren bidez, **2030eko Espainiako Turismo Jasangarriaren Estrategiaren** jarraibide orokorrak prestatu ditu. Sektoreak epe ertainean eta luzean dituen erronkei aurre egiteko turismo-agenda nazionala.

Horretarako, jasangarritasunaren hiru oinarriak sustatzen ditu: sozioekonomikoa, ingurumenekoa eta lurraldekoa.

JASANGARRITASUNERAKO ESTRATEGIAK EAE-N

2018ko apirilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak lehen **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** onetsi zuen; hartan, 2030 Agendaren helburuak eta jomugak Eusko Jaurlaritzaren Programako konpromisoekin lotu zituen. 2018tik eginiko lanarekin jarraitzeko, 2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak **2030 Agendaren Lehentasunen EAEko Programa** onetsi zuen; 2021-24 aldirako Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren Legegintzaldiko jarduketa-plana da. Plan hori EAEko XII. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin lotura zuzenean antolatzen da. Ezarritako adierazle-sistemak haren betearazpenaren eta ekarpenaren berri ematen du, bai eta haren sektore- eta departamentu-politiken berri ere, garapen jasangarriko 17 helburuekin eta haien 169 jomugekin lotuta. Era berean, aukera ematen du ebaluazio bat ezartzeko eta berehalako etorkizunean proiektatutako ondorioak ateratzeko.

Lurralde-mailatik udal-mailara jaisteko, EAEko zenbait udalek 2030 Agenda haien errealitatera egokitzeko estrategia hasi dute. Estrategia hori egiteko bide emateko, Eusko Jaurlaritzak zenbait baliabide jartzen ditu udalen esku, hala nola 2030 Agenda toki-mailan ezartzeko gida, udal interesdunei zuzentzen zaien eskualdeko hausnarketarako lantaldeen sorrera, etab. Udalez gainera, beste eragile batzuek ere eginkizun garrantzitsua dute garapen jasangarriko helburuen ezarpenean, besteak beste, unibertsitateek, enpresek eta elkarteek.

Analisi-erreferentzia gisa, EAEko udalerrien sareak (UDALSAREA) "**Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei**" txostena prestatu zuen; hartan, EAEko udalerriek 2015-2019 aldian GJHei eginiko ekarpenaren analisia jasotzen da, eta helburu du 2030 Toki Agendetarako trantsiziorako bide ematea.

TURISMOA ETA JASANGARRITASUNA GIPUZKOAN

Gipuzkoa da ekonomian turismoaren trakzio-inpaktu handiena duen lurralde historikoa; BPGd-aren % 7,6 dagokio. Lurraldeak erronka bat du: turismoa industria gisa aitortzea eta, horrela, haren onurak gizartean integratzea eta haiek publiko egitea.

Ikuspuntu horretatik, turismo jasangarria konpromiso irmoa da industriaren profesionaltasunarekin eta bikaintasunarekin hazkuntza ekonomiko jasangarria eta inklusiboa sustatzeko; hala, gizarte-desberdinkeriak saihesten dira lurralde osoan enplegua eta aberastasuna lortzeko.

Hala, Gipuzkoak eskaintzen duen turismo jasangarriak gogobetetasun-maila altua ekarri behar du bisitariengan, eta esperientzia esanguratsua haientzat, jasangarritasun-arazoen inguruan kontzienteago izateko, turismo-jardunbide jasangarriak sustatzeko eta lurralde osotik mugitzea sustatzeko aukera emango diena.

Gipuzkoako eskaintzaren berezitasunaren oinarria haren kultura dela kontuan hartuta, oso garrantzitsua da turismo jasangarriaren garapenean Gipuzkoaren benetakotasun soziokulturala errespetatzea, bertako hizkuntza eta arkitektura biziak eta balio tradizionalak babestea eta kulturen artean elkar ulertzen eta onartzen laguntzea.

Lurraldearen berezitasun horrez gainera, natura eta paisaia paregabeak dira, Gipuzkoako mendiak eta itsasoa turismo-garapenaren funtsezko elementu dira eta ezinbestekoa da herritarrek eta bisitariak ingurumen-baliabideen erabilera egokia egitea eta, hala, aniztasun biologikoa kontserbatzen laguntzea.

Proiektu handi horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) lidergo irmoa behar da turismoa prozesu interaktiboagoa, adostuagoa eta horizontalagoa izan dadin, non sektore publikoak eta eragile ekonomikoek eta sozialek parte hartzen baitute. Lurraldea behar bezala kudeatzeko bide emango duen eta turismo jasangarriaren gorabeheren etengabeko segimendua bermatuko duen elkarlan zabala eta gobernantza irekia lortzea eta, horretarako, beharrezkoak diren prebentzio- edo zuzenketa-neurriak aplikatzea.

3. PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO METODOLOGIA.

“[Goierriko eskualdearen turismo-jasangarritasunerako Plan](#)”a prestatzeko prozesua 2030 Agendarekin eta Nazio Batuek adostutako garapen jasangarrirako helburuekin bat dator, eskuratzen dugun emaitza jasangarritasunaren eremuan aurreratuenak diren EAEko eta Europako udalerrienekin parekatzeko. Hura diseinatzeko, honako hauek izango dira kontuan: [Turismo Jasangarrirako Gida](#), [Garapen Jasangarrirako Espainiako Sareak 2019ko abenduan argitaratua](#), garapen jasangarrirako 17 helburuen betetze-maila balioesteko; [Turismoak lurralde-ikuspuntutik duen inpaktuari eta jasangarritasunean duen intzidentziari buruzko txostena](#), [SEGITTURek 2019an argitaratua](#), eta [2030 Espainiako turismo jasangarriaren estrategiaren gidalerro orokorrak](#).

Lehen fasean, **eskualdeko diagnostikoa** egingo da, eskualdeko udalerriek gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronkei egiten dieten ekarpenari buruzkoa. Lehen unetik, orientazio estrategikoa zehazteko ahalik eta ikuspuntu gehien izateko ahalegina egin da. Beti da positiboa eta aberasgarria aukera ematea estrategia horietan tartean izango diren, konprometituta dauden edo haren eraginpean dauden interes-talde guztiei, haien kezka eta beharren berri emateko espazio bat eduki dezaten. Hori horrela, [kontsulta global bat zabaldu zaie eskualdeko sektore publiko eta pribatuei](#), eta, hartan, haien proposamenak jaso dira.

Lehen analisi-lana egin ondoren, helburu jasangarriak lortzeko, eskualderako baterako ibilbide-orri bat diseinatuko da, eskualdeko eragile guztien adostasuna izango duena. Hala, egoeraren diagnostikoa egin ondoren, 2030 Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko fasea hasiko da.

4. GOIERRIKO ESKUALDEAREN EKARPENA GJH-EI

GJHen eta turismoaren arteko harremana zenbait ikuspegiren bidez zehazten ari da. Hasiera batean, garrantzitsutzat jo ziren soilik sektorearekin zuzenean lotzen ziren helburuak, hala nola enplegua, ekoizpen eta kontsumo jasangarriak, itsasoko eta lurreko ekosistemen kontserbazioa, etab. Baina, analisi zehatzago bat egin ondoren, zeharkakotasun handiagoa antzeman zen, eta sektoreak GJH guztien betearazpenean duen eragina kontuan hartzen hasi zen. Hala, 2030. urtera iritsi arte, sektorea eraldatu egin beharko da eta GJH guztien eragile eta sustatzaile bilakatu beharko da, Nazio Batuen Batzar Orokorrak 2015ean adostutako Agendak ezartzen duen neurrian.

Helmuga batean konpromiso jasangarria finkatzeak eta ikusarazteak eta, hala, jasangarritasuneko estrategia integral berria abiarazten dela ziurtatzeak dakar, lehendabizi, [abiapuntuaren](#), konpondu beharreko jasanezintasuneko arrailen eta dauden oztopoen eta hobetzeko dauden aukeren inguruko [diagnostiko](#) bat izatea. Turismo-helmugen lehen “argazkia” egin behar da, eta hark hasierako egoera islatu behar du GJHen betetze-mailari dagokionez. Análisi horren bidez, ikuspegi global bat sortuko da, azterlan xehatu batetik abiatuta eraikia, eta 17 GJHen arabera turismo-lurraldean jasangarritasunean eragina duten zenbait aldagai neurtuko dira.

Abiapuntuko diagnostiko sinesgarria ezartzeko eta GJHen betearazpenean ematen diren aurrerapausoen segimendua egin ahal izateko, jasangarritasunaren alderdietan eragina duten aldagaiak neurtzeko [adierazle-sistema egokia](#) beharko da. Hala, bada, dokumentu honen helburu nagusia da turismo jasangarriaren adierazleen multzo global bat prestatzeko oinarriak ezartzea; hark GJHak betetzeko xedean egiten diren aurrerapenen neurrian eraginkorra izan beharko du eta helmuga bakoitzak gutxieneko kontrol-maila gisa erabili beharko du, bakoitzak bere ezaugarri eta beharretara egokituta (Iturria: Turismo jasangarrirako gida. Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea (REDS)- Turismo Arduratsuen Institutua (RTI)).

Hori dela eta, Goierriko eskualdeak, helmuga jasangarriaren, adimentsuaren eta inklusiboaren estrategian, bat etorri beharko du, argi, helburu horiekin.

Hala, dokumentu diagnostiko honen bidez, [eskualdeko udalerriek garapen jasangarrirako 17 helburuei zer ekarpen egiten dieten aztertu nahi da](#), ondoren plangintza helburu horiek betetzera bideratu ahal izateko.



17 GJHen irudia.

Análisi hori egiteko, kontuan hartu da, batetik, [Turismo jasangarrirako Gidan deskribatutako eskakizun edo erronkei buruzko autoebaluazio-irizpideen sistema](#), eskualde turistikoak 2030 Agendan jasotako 17 GJHetan eta 169 jomugetan biltzen diren jasangarritasuneko printzipioekin duen inplikazio-maila labur eta modu bisualean eduki ahal izateko.

Irizpide bakoitzerako, betetze-mailaren balorazio bat dago, eta hura 4 egoera posibletan banatzen da. Kolore berdeak adierazten du eskakizunaren betetze-maila % 75ekoa dela, eta gorriak, % 25etik beherakoa dela. Kolore horiak tarteko egoerak eta eskakizuna zati batean

betetzen dela adierazten ditu , eta kolore grisa erabiltzen da adierazlea aztertutako turismo-testuinguruan aplikatzen ez dela adierazteko.

Eskakizuna betetzen da	■
Eskakizuna zati batean betetzen da	■
Eskakizuna ez da betetzen	■
Eskakizuna ez da aplikatzen	■

Beste alde batetik, EAEko udalerriek urtero kalkulatzeko duten jasangarritasunaren adierazleen sistema bat jasotzen da, Udalsareak (udalerrri jasangarrien EAEko sarea) egiten duen segimendu-txostenari jarraikiz. Adierazle horiek eskualdearen batez besteko datu gisa eta EAEko estatistika-iturrietan (Eustat, Udalmap,...) haien inguruan dagoen eskuragarritasunaren arabera aurkezten dira.

4.1. DIAGNOSTIKO-FITXAK



1. GJH

Turismo jasangarria ekonomia-eredu alternatiboak garatzeko aukera gisa planteatzen da, besteak beste, ekonomia berdea, ondasun erkidearen ekonomia edo ekonomia zirkularra garatzeko aukera gisa. Turismoarekin zerikusia duten ekimen eta proiektuak, ohiturekin zerikusia duten tokiko ezagutzak eta kultura-ondare ez-materiala sustatzeko bide ematen du, eta, hala, azken hori turismo-jardueran eraginkortasunez transmititzeko eta integratzeko.

ESKUALDEAK HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ BIZI DUEN EGOERA

Goierriko eskualdeko pobrezia- eta gizarte-bazterketaren indizeak probintziako edo EAEko indizeak baino askoz ere baxuagoak dira, eta gauza bera gertatzen da mila biztanleko dauden gizarte-larrialdietarako laguntzen hartzaile kopuruarekin ere.

Eskualdeko udalek, gizarte-ekimenetik, zenbait dirulaguntza eta zerbitzu eskaintzen dizkiete larrialdi-egoeran dauden familiei: harrera-pisuak, etab. Aldi berean, beste eragile batzuen ekimenak ere badaude, hala nola Caritasenak eta Elikagaien bankuarenak. Gainera, udalek haien aurrekontuen % 7 lankidetzeta-proiektuetara bideratzen dute, eta gehienek proiektu humanitario batzuekin dihardute elkarlanean.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
<i>Pobrezia eta gizarte-bazterketa (biztanleen %)</i>	8,22 / 17,08 / 23,81 UDALMAP 2021
<i>Gizarte-larrialdietarako laguntzen hartzaileak (biztanleen %)</i>	7,39 / 11,53 / 13,29 UDALMAP 2021

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida - REDS-RTI)

1.1. Gizarte-xedeak dituzten kanpaina eta ekimenak	
1.2. Turismoak tokiko ekonomian dituen onura ekonomikoak (1.3, 1.4 eta 1.b jomugak)	
1.3. Nazioarteko lankidetzako eta ekintza humanitarioko proiektuak	

Hala, Goierriko eskualdean, turismo jasangarriaren garapena eta erkidegoetan duen eragina tresna eraginkorra dira enplegua sortzeko eta, hala, ekintzailtza eta negozio txikiak sustatzeko eta gizarte-egoera ahulagoan dauden taldeak, besteak beste, emakumeak, gazteak eta etorkizunak ahalduzko.



2. GJH

Sektoreko enpresek turismo jasangarria susta dezakete, tokiko kontsumoaren bidez nekazaritza-ekoizpena suspertzen duena, negozio-eredu alternatiboak eskaintzen dituen, besteak beste, nekazaritza-turismoa, eta ingurumenarekin eta tokiko ohiturekin errespetuzkoa dena

ESKUALDEAK HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ BIZI DUEN EGOERA

Nahiz eta nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen eskualdean sektore guztien balio erantsi gordinari (BEGd) dagokionez pisurik ez izan, sektorearen BEGd-a eskualdean, probintziarenaren edo EArenaren aldean, nabarmen handiagoa da. Lurzoru emankorrena, neurri handi batean, hiri- eta industria-lurzoruak hartzen du; beraz, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak mugak ditu. GOIMENek, Goierriko landa-ingurunearen alde lan egiten duen eskualdeko elkarteak, eskualdeko 22 udalek eta nekazaritza-elkartek eratzten dutenak, laguntza eta aholkularitza ematen dizkio sektoreari.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
Balio erantsi gordina (BEGd) nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, sektoreen guztizkoaren BEGd-aren aldean.	3,53 / 0,57 / 0,79 UDALMAP 2020
Ustiategi kopurua	32 ENEK

Badaude tokiko produktuen salmenta sustatzeko kanpainak merkatu eta azoken esparruan: hileko lehen larunbatetako azoka bereziak Beasainen, Ordiziko azoka ezaguna...

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida - REDS-RTI)

2.1. Tokiko nekazaritza jasangarria	
2.2. Elikagaien kalitatearen kontrolak	
2.3. Elikagaien xahubidearen aurkako neurriak	
2.4. Lur emankorren babesa	

Zentzu horretan D'ELIKATUZ interpretazio-zentroak egiten duen lana aipatu behar da. Zentro horrek elikaduran eta gastronomian ere badihardu, eta oso modu grafikoan eta elkarreragilean aurkezten ditu euskal kulturaren hain errotuta dagoen gai horri buruzko zenbait alderdi.

Gainera, BIZIOLA gizarte-ekimen berria nabarmendu behar da; haren bidez, gizarte-ekonomia eraldatzaileko eragileak eta beste entitate batzuk inplikarazi nahi ditu, GOITURen parte-hartze zuzenarekin sorreratik, Goierri independenteagoa, jasangarriagoa eta

orekatuagoa izateko proiektu zehatzak abian jartzeko.

Elikagaien xahubideak kontrolatzeko politikak zuzentzeko beharra aipatu behar da.

Hala, turismoak eskualdeko nekazaritza-produktibitatea susper dezake, turismo-helmugetan tokiko produktuen ekoizpena, erabilera eta salmenta eta sektorearen balio-katean erabat integratzea sustatzean. Gainera, dagoen nekazaritza-turismoa nekazaritza-jarduera tradizionalen osagarri izan daiteke. Oraindik badaude eskualdean tokikoak eta oso jatorrak diren esperientziei lotutako ekimen berriak eta askotarikoak aktibatzen auzerak.



3. GJH

Turismoak hazkuntza ekonomikoari eta garapenari egiten dien ekarpenak albo-efektua izan dezake, era berean, osasunean eta ongizatean.

ESKUALDEAK HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ BIZI DUEN EGOERA

Turismotik datozen dibisa eta zergen sarrera osasun-arretan eta -zerbitzuetan berrinberti daiteke, eta hark, besteak beste, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen lagundu beharko luke. Hori horrela, eskualdeak osasun-sare ona du.

Osasunerako arrisku-faktoreei dagokienez, besteak beste, aire-kutsadurari dagokionez, Beasain udalerrian Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen airearen kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko sarearen estazioa dagoela esan behar da. Estazio horrek eskualdeko airearen kalitatea zein den adierazten du, eta estazio horrek xurgatzen dituen kutsatzaileen kontzentrazioa aztertzen du. Estazioak neurtu dituen azken emaitzen arabera (2023ko urtarrila), eskualdeko airearen kalitatea ona dela esan daiteke.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida - REDS-RTI)

3.1. Ingurumen-arriskuen prebentzioa	
3.1. Turismo-produktu eta -jarduera osasungarriak	
3.2. Osasun-asistentzia	

Goierriko eskualdeak aukera handia du bizi-estilo osasungarriak xede dituzten turista nazionalak eta nazioartekoak erakartzeko; bizi-estilo horietan jarduera fisikoa, osasuna eta ongizatea esanguratsuak dira, hala nola aire zabaleko kirolak, kalitateko tokiko produktuak, etab.

Zenbait kanpaina daude adinekoen artean jarduera fisikoa eta osasun-ohitura egokiak sustatzeko: “GoazenOrdizia”, “Beasain Ondo ibili Ondo izan”, etab.

Eskaintza zabala eta askotarikoa dago mendiko ibilbideekin eta mendi-ibiliekin eta tokiko gastronomiarekin eta sasoikoarekin lotuta.

Gainera, eskualdeko udalerriak mugikortasun jasangarriko politiken aldeko apustua egiten ari dira, besteak beste: zenbait udalerritan kale batzuk oinezkoentzat jarri dira eta, hala, oinezkoen mugikortasunerako bide eman da; bizikleta-bideen sarea handitzen ari da; ibilgailu pribatuaren erabilera partekatzeko programak jarri dira abian, eta udalerrri batzuetan errenergia elektrikoko puntuak jarri dira.

Nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasun Planaren barruan

bizikleta-bidearen adarra –Beasain, Idiazabal eta Ordizia– Turismo Jasangarriaren Gidan sartu zela.

Era berean, eskola-umeak oinez mugitzeko ekimen bat dago zenbait udalerritan: “Eskolara oinez”.



4. GJH

Turismoak aurrera egiteko, prestakuntza eta gaitasun egokiak dituen lan-indarra behar da. Sektoreak pizgarriak ekar ditzake hezkuntzan eta lanbide-heziketan inbertitzeko eta lan-mugikortasunean laguntzeko.

ESKUALDEAK HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ BIZI DUEN EGOERA

Turismoak aurrera egiteko, behar bezalako prestakuntza, trebetasunak eta gaitasunak dituzten lanbide-profilak behar dira. Hori horrela, eskualdeko prestakuntza-eskaintza ez da oso zabala, baina aipatu behar da sukaldaritzako eta jatetxe-arloko erdi-mailako gradu bat dagoela Goierri Eskolan (prestakuntza-zentroa). Zentro honek, era berean, hezkuntza-eskaintza zabala du erdi- eta goi-mailako graduetan, ingeniartzan eta lanbide-heziketan. Garapen jasangarrian oinarritzen den hezkuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zenbait ikastegitan garatzen da, 2030 Eskola Agenda hezkuntza-programaren bidez.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa, 18 urteko edo gehiagoko biztanle kopuru osoarekin alderatuta	22,65 / 26,12 /26,66 UDALMAP 2021
2030 Eskola Agenda duten eskualdeko ikastetxeak (publikoak, itunduak eta pribatuak)	11 INGURUGELA

Zenbait udalek bat egin dute gizarte-sektore batzuei zuzentzen zaien hezkuntza ez-arautua garatzeko Herri-hezitzaile proiektuarekin.

Bi ekimen nabarmendu behar dira, jasangarritasunerako hezkuntzarekin duten konexioagatik: Natureskola (Oiangu), Baso eskola (Olaberri) eta beste hezkuntza-kanpaina batzuk.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

4.1. Hezkuntza inklusiboa eta kalitatekoa	
4.2. Turismoan eta garapen jasangarrian oinarritzen den hezkuntza	
4.3. Erakundeen arteko jasangarritasunaren aldeko lankidetzak	

Zehazki, prestakuntza-eskaintza honek onurak ekarri beharko lizkieke iraupen luzeko langabeei, gazteei, emakumei eta behar bereziak dituzten pertsoneri; izan ere, turismoak inklusio-politika zabalak sustatzeko gaitasuna du (adibidea: EMAKTIVA gizarteratzeko programa...)



5. GJH

Turismo-sektorean ordainsari baxuko enpleguei dagokienez genero-arraila txikitzeko, enpresek emakumei lan-eskubide eta -aukera berak bermatzeko neurriak sustatu eta emakumeak ahalduzko eragile gisa jardun behar dute eta, hala, toki-mailan enplegu duina eman.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Eskualdean emakumeen errenta osoaren balioek, gizonen errentarekin alderatuta, 14.000 €-ko aldea dute, eta genero-arraila are handiagoa da, gainerako lurraldeetan baino (Gipuzkoa eta EAE).

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
18 urteko edo gehiagoko emakumeen guztizko errenta	17.922 / 18.687 / 17.667 UDALMAP 2020
18 urteko edo gehiagoko gizonen guztizko errenta	31.926 / 28.672 / 27.422 UDALMAP 2020

Eskualdeko udal gehienek berdintasun-planak dituzte. Eskualdeko udalek aldarrikapen-ekintzak egiten dituzte egun jakin batzuetan (martxoaren 8a, azaroaren 25a...).

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

5.1. Genero-berdintasuneko politikak eta kanpainak	
5.2. Lan-baldintzak eta emakumeen ahalduntzea	

Kontuan izan behar da, eskualdeko turismo-sektorearen barruan, azpisektore gehienetan, emakumeen presentzia nagusitzen dela, turismo-dibertsifikazioa ekarri duten lehen sektoreko enpreetan bezala. Oro har emakume enplegatu eta ekintzaile kopuru handiena duen sektoreetako bat izanik, turismoak emakumeen potentziala askatzeko eta erabat parte hartzen eta gizarteko eremu guztietan emantzipatzen laguntzeko balio dezake.



6. GJH

Turismo-fluxuak baliabideen kontsumitzaile handiak dira – besteak beste, urarenak–, eta saneamendurik ezak turismo-helmugen irudian izan dezake eragina eta, hala, haien garapen sozioekonomikoa kaltetu. Gainera, turismoaren sektoreak gobernuen inbertsio publikoak sustatzen ditu eta, hala, azpiegiturak sortzeko bide ematen du.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Gipuzkoako Ur Partzuergoa da eskualdeko udalerrri gehienetako baliabide hidrikoak kudeatzeko arduraduna. Hondakin-uren saneamenduari dagokionez, asko dago egiteko. Turismo-establezimendu gehienek, sarera konektatuta ez daudenez, putzu septikoak erabiltzen dituzte.

Aipatu behar da aurretik ura aurrezteko kanpainak egin izan direla zenbait turismo-establezimendutan (nekazaritza-turismoak).

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

6.1. Uraren segurtasun-, kalitate- eta kontsumo-kontrolak	
6.2. Aztarna hidrikoa	
6.3. Ura aurrezteko sentsibilizazio-kanpainak	
6.4. Uraren kutsaduraren prebentzioa	
6.5. Baliabide hidrikoen birziklapena eta berrerabilera	

Eskualdeko turismoak funtsezko eginkizuna izan dezake uraren erabilera eraginkorra lortzeko, hondakin-urak kudeatzeko (nekazaritza-turismoetan), kutsadura kontrolatzeko, eraginkortasun teknologikorako eta baliabide hidrikoak birzirkulatzeko proiektuetarako neurriekin batera. Hura funtsezkoa da eskualdeko baliabide preziatuenetako bat babesteko.



7. GJH

Funtsezko ekarpen energetikoa behar duen sektore bat izanik, turismoak energia berriztagietara egin beharreko aldaketa bizkortu egin dezake eta haren kuota areagotu munduko matrize energetikoan.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Nahiz eta eskualdeko energia berriztagarriaren ekoizpena gaur esanguratsua ez izan, gero eta gehiago dira eraginkortasun energetikoaren arloko ekimenak (argiteria publikoaren ordeztasun sistema eraginkorragoak jartzea), bai eta udal-erakin batzuetan energia hornitzeko eguzki-energia fotovoltaikoaren ezarpena ere.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI
Energia berriztagarrien ekoizpen zenbatetsia, guztira, kWh-etan, biztanleko eta urteko.	% 0,1 ESKUALDEKO PLAN ENERGETIKOA 2015

Aldi berean, udal gehienek kontsumo energetikoak monitorizatzeko kontrol-sistemak ezarri dituzte. Eskualdean biztanle kopuru handiena duten bi udalerrriak haien plan energetikoak eta klimatikoak diseinatzen ari dira. Bestalde, energiaren eskualdeko lan-mahaia sortu da, eta eskualdeko plan energetikoa diseinatu.

Gainera, erkidego energetikoen ekimenak nagusitzen ari dira.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

7.1. Energiaren erabilera eraginkorra	
7.2. Energia berriztagarriak	
7.3. Aurrezpen energetikoko kanpainak	

Energia jasangarriko iturrien inguruko inbertsio sendoak eta epe luzekoak sustatzean, turismoak lagundu dezake berotegi-efektuko gasen irudiak murrizten, klima-aldaketa arintzen eta hiri- eta landa-eremuetan irtenbide energetiko berriak eta berritzaileak ezartzen.



8. GJH

Turismoa funtsezko sektore bat da hazkuntza ekonomiko jasangarria eta inklusiboa lortzeko, eta lan-baldintza duinak eskaintzen dizkie tokiko erkidegoei eta pertsona kopuru handi bati oro har, eta, zehazki, gazte eta emakumeei.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Esan daiteke Goierriko biztanleen ekonomia- eta lan-egoerak osasun ona duela. Eskualdeko BPGd-a, biztanleko, probintziakoa eta EAEkoa baino % 50 handiagoa da, eta langabezia-tasa probintziaren tasa baino bi puntu baxuagoa eta EAERena baino ia 4 puntu baxuagoa da.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
Eskualdeko barne-produktu gordina biztanleko	149 / 102,24 / 100 UDALMAP 2020 (Olaberriaren balioa 783,25 (2. udalerrria rankingean) eta Arama 518,22 (6. udalerrria rankingean))
Biztanleria aktibo langabearen ehunekoa	4,65 / 6,74 / 8,24 UDALMAP 2021

Ekimenak daude eskualdeko zenbait udalerritan tokiko merkataritza sustatu eta bultzatzeko. Bestalde, bai GOIEKI eskualdeko Garapen Agentziak bai GOITUR eskualdeko Turismo Agentziak alderdi horretan eskaintzen dituzten zerbitzuak nabarmendu behar dira. GOIEKik aholkularitza eskaintzen du ekintzailtzarako eta enpresei laguntzeko programetarako (kudeaketa, teknologia, segimendua eta prestakuntza), eta GOITUREk Goierriren sustapenean eta merkaturatzean eta turismo-produktuen dinamizazioan lan egiten du; turismo-helmuga adimenduna lortzeko eta eskualdeko turismoa antolatzeke eta turismoaren bidez beste sektore batzuei laguntzeko ekimena da.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

8.1. Lan-eskubideak, segurtasuna eta bereizkeria	
8.2. Lan-kontziliazioa eta gazte-enplegua	
8.3. Tokiko enplegua eta ekintzailtza	
8.4. Berrikuntza teknologikoa turismo-sektorean	

Turismoa munduko ekonomia-hazkuntzaren eragileetako bat da, eta, gaur egun, 11 lanpostu bakoitzeko 1en sorreraren arduraduna. Hori horrela, enplegua sortzeko gaitasunaren inguruko indarguneak gorabehera, beharrezkotzat jotzen da enpleguaren egonkortasunean eta lanbide-kualifikazio handiagoan aurrera egitea. Goierriren turismo-sektoreak enplegua sortzeko gaitasun handia du, bertako enpresen hazkuntzaren eta ekintzailtza berritzaile eta kalitateko berrien sorreraren bidez, bereziki emakume eta gazteena, enpresa- eta lanbide-ekosistemari balioa ematen dietena.



9. GJH

Turismo-sektoreko enpresek kalitateko azpiegitura publikoak eta pribatuak behar dituzte; beraz, turismo-helmugen gaitasun teknologikoa hobetzen lagundu dezakete, bereziki landa-erkidegoena, informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbideari dagokionez, turistak erakartzeko modu bat baita.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

GOIEKI eskualdeko Garapen Agentziak industria-berrikuntza garatzeko arloari heltzen dio: berrikuntzaren arloan eskualderako etorkizuneko sektore estrategikoak (Smart Mobility, 4.0 Industria, Energia,...) identifikatzeko berezko ikuskaritza-sistema bat du. Aldi berean, GOITUREk plan pilotu bat jarri du abian, Estatuko lehen turismo-helmuga adimendun gisa.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
Ingurumen-ziurtagirien kopurua enpresa pribatuetan, erakunde publikoetan eta Udalak kudeatzen ez dituen beste erakunde batzuetan (EMAS, Ekoscan, ISO 14006, UNE 150301...)	10,86 / 5,05 / 5,93 UDALMAP 2008

Ingurumen-ziurtagiria duen enpresa eta erakunde kopurua handiagoa da, gainerako lurraldeekin alderatuta (Gipuzkoa eta EAE).

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

9.1. Azpiegitura jasangarriak	
9.2. Turismo-azpiegiturretarako sarbidea	
9.3. IKTak erabiltzea turismo jasangarrirako	

Turismoaren garapenak azpiegitura berritzaileak, adimendunak eta kalitatekoak behar ditu, bai publikoak bai pribatuak; izan ere, hori guztia turistak eta atzerriko inbertsio-iturriak erakartzeko modu bat da.

**10. GJH**

Turismoa bilakaera komunitariorako tresna bikaina da; izan ere, turismo-jarduerari esker, gutxitu egiten dira desberdintasunak eta, hala, erkidegoen garapen ekonomikoa sustatzen da, bai eta haietako inbertsio ekonomikoa ere, eta, haien bidez, gizartearen eta ekonomiaren onura eta ingurumenaren babesa bilatzen dira.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Eskualdeko herri nagusietan zerbitzu eta baliabideen irisgarritasun unibertsala bermatzeko politikak ezartzen dira, baina herri txikienetan baliabide falta egoteak zaildu egiten du egoera.

Nahiz eta etxebizitza babestua sustatzeko politikak egon, alokairuko etxebizitzaren eskariari ez zaio erantzuten, batik bat sektore ahulenen artean (gazteak, emakumeak, etorkinak...)

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI/GIPUZKOA/EAE
10.000 biztanleko erregistratutako immigrazio kopuruaren arteko erlazioa	146,55 / 158,21 / 180,04 EUSTAT 2021

Udalek etorkinak integratzeko zenbait programa dituzte: harrera-protokoloak, udal-zerbitzuen katalogoa zenbait hizkuntzatan, prestakuntza, etab.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

10.1. Gizarte-integrazioa eta aukera-berdintasuna	
10.2. Irisgarritasun unibertsala	
10.3. Onuren banaketaren dibertsifikazioa	

Sektoreak hiri-berroneratzean eta landa-garapenean lagundu dezake, eta bilakaera komunitariorako eta desberdintasuna murrizteko tresna boteretsua izan daiteke, baldin eta haren garapenean tokiko biztanleria eta funtsezko eragile guztiak murgilarazten baditu.



11. GJH

Hiri batek egokituta egon behar du herritarrentzat; izan ere, hala, turistentzat ere egongo da egokituta. Turismoaren sektoretik hiri jasangarriak, adimendunak, eraginkorrak, erresilienteak eta irisgarriak sustatzea funtsezkoa da turistak helmugara erakartzeko gaitasuna areagotzen dela bermatzeko.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Udalak haien lurralde-antolamenduko planak berrikusten ari dira, eta, haietan, irizpide jasangarriak ari dira kontuan hartzen, natura- eta kultura-ondarea babesteko. Irizpideetako bat da landa- eta natura-izaerako eremu urbanizaezinen kontsumoa saihestea.

Eskualdeko udalerrri handiak eta ertainak mugikortasun-plan jasangarriak diseinatzen ari dira. Haien helburua da oinezkoen eta bizikleten eremuak handitzea, bai eta garraio publikoa hobetzea ere.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

11.1. Lurralde-plangintza jasangarria	
11.2. Kultura- eta natura-ondarea	
11.3. Tradizioak eta kultura-ondare ez-materiala	
11.4. <i>Overtourisma</i>	

Lurralde bat hartan bizi diren pertsonentzat egokituta ez badago, hura bisitatuko dutenentzat ere ez da egokituta egongo. Turismo jasangarriak gaitasuna du hiri-azpiegiturak eta irisgarritasun unibertsala hobetzeko, gainbehera dauden eremuak leheneratzea sustatzeko eta kultura- eta natura-ondarea babesteko, turismoa aktibo horien mende baitago.

**12. GJH**

12. helburuko 12.b jomugan adierazten denez, ezinbestekoa da «garapen jasangarriko ondorioak ikuskatzeko tresnak prestatu eta aplikatzea, lanpostuak sortuko dituen eta kultura eta tokiko produktuak sustatuko dituen turismo jasangarria lortzeko».

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Sasietako Mankomunitatea egiten da hondakinen kudeaketaren kargu, eta hondakinak gaika banatzeko datuak hobetzen joan dira, udalerrietan jarri diren bilketa-sistema berrien laguntzarekin (atez atekoa, edukiontzi marroia, konpostatze komunitarioa eta etxeko konpostatzea).

Gaur egun, eskualdeko banaketa-tasa % 78 eta % 80 bitartekoa da.

Jasangarritasun-adierazleak (Udalsarea 2030)

Adierazlea	GOIERRI
Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera, kg-tan, biztanleko eta eguneko	297,9 SASIETA 2022
Gaika batzen diren etxeko eta merkataritzako hondakinen ehunekoa	76,8 SASIETA 2022

Badaude azoken esparruan tokiko produktuen salmenta sustatzeko ekimenak (Ordiziako Azoka, Beasaingo azoka, Biziola, Goierri Gastronomikoa ekimena, etab.).

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

12.1. Tokiko erosketak eta kontsumoa	
12.2. Hurbileko kontsumoa	
12.3. Hondakinen birziklapena	
12.4. Helmuguen eta eskualde igoerleen arteko elkarlana	

Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko jardunbideak dituen turismo-sektore batek eginkizun esanguratsua izan dezake jasangarritasunerako trantsizioan. Turistak, lurraldetik bidaiatzen ari direnean tokiko produktuaren kontsumitzaile handiak izateaz gainera, helmugako produktuen gomendatzaile handiak ere izaten dira haien bizitokira itzultzen direnean, eta, hala, produktu horiek Espainiako eta munduko beste eskualde batzuetara esportatzea lortzen da.



13. GJH

Turismoak klima-aldaketarako bide ematen du eta haren eraginpean ere badago; beraz, funtsezko eragile bat da, eta hura arintzeko parte aktibo izan behar du.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Eskualdeko energiarako lan-mahaia sortu da, eta eskualdeko plan energetikoa diseinatu da. Beasaingo eta Ordiziako Udalek klima- eta energia-planak abiarazi berri dituzte.

Udalerri horietan, berotegi-efektuko gasen (BEG) isurien inbentario bat egiten da.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

13.1 Karbono-aztarna	
13.2. Garraio jasangarria	
13.3. Turismo-sektorearen klima-aldaketarekiko erresilientzia	

Eskualdean, oro har, energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren aldeko eredu-aldaketa finkatzen ari da, eta, hala, BEGen isuriak murriztuko dira.

Garraioaren sektorea da gas horien sortzaile nagusia eta, beraz, mugikortasun jasangarriko politika handiagoak behar dira.

Sektorearen beraren interesekoa da eginkizun protagonista izatea klima-aldaketari ematen zaion erantzun globalean. Energia-kontsumoa murriztuz eta iturri berriztagarriak erabiliz, bereziki garraioaren eta ostatuaren sektorean, turismoak lagundu dezake gure garaian bizi dugun erronka larrienetako bati aurre egiten.



15. GJH

Turismo jasangarriak eginkizun garrantzitsua izan dezake bai biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko, bai lurreko ekosistemak errespetatzeko, hark hondakinak eta kontsumoa murrizteko, bertako flora eta fauna kontserbatzeko eta sentsibilizazio-jardueretarako egiten duen ahaleginari esker

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Goierriko eskualdearen elementu bereizleetako eta, aldi berean, erakargarrietako bat bertako natura eta espazio natural babestuak dira, bi parke naturalen artean baitago. Eskualdeko azaleraren % 20,2k babes bereziko figura bat du.

Hori horrela, udalak neurriak hartzen ari dira eskualdeko udalerrri gehienetan natura-ondarea leheneratzeko. Kasu batzuetan, natura-ondarean barruko lursail pribatuak kudeaketa publikorako eskuratzen ari dira: haiek leheneratu eta kontserbatzeko, espezie autoktonoak landatzeko, basoak mikorritzatzeko... Gainera, erreka ertzak leheneratzeko lanak egin dira eta, horretarako, landare inbaditzaileak kendu, zaborrak batu eta landaredi autoktonoa landatu da.

Eskualdean, mendiarekin eta natura-ingurunearekin zerikusia duten hainbat jarduera egiten dira, eta jarduera horietan haiek errespetatzeko irizpideak baliatzen dira (adibidea: mendiko kirol-probetan parte-hartzaile kopurua mugatzea). Turismo-eskaintza zabala da, zentzu horretan.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

15. 1. Ingurumen-inpaktua turismo-jardueran	
15.2. Natura-baliabideen kontserbazio-plana	
15.3. Flora eta fauna	
15.4. Natura-ondarearen errespetuzko erabilera sustatzea	

Turismo jasangarriak eginkizun garrantzitsua izan dezake bai biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko, bai lurreko ekosistemak errespetatzeko, hark hondakinak eta kontsumoa murrizteko eta sentsibilizazio-jardueretarako egiten duen ahaleginari esker.



16. GJH

Turismo jasangarriaren ekintzak helmugako parte hartzeko gobernantza-eredu inklusiboan eta jasangarrian sartu behar dira, bai eta helmugetan bakearen kultura eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko eredu ere.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Jasangarritasun-erronka horiek lortzeko parte hartzeko prozesuak abian dira zenbait udalerritan. Nahiz eta eskualde osoan dauden elkarlaneko eta parte hartzeko espazioak, parte hartzeko prozesuetako parte-hartze maila baxua da.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

16.1. Herritarren parte-hartzea	Orange
16.2. Turismo-inpaktuaren ebaluazioa	Green
16.3. Bizilagunen eta bisitarien gogobetetasuna	Green
16.4. Turismo-intereseko informazioa	Green
16.5. Turismo-estrategia jasangarria	Green
16.6. Turismo-sektorearen ustiapenaren aurkako politikak	Orange

Eskualdeko zenbait udalerrik (Beasain, Ordizia, Idiazabal eta Olaberria) jasangarritasun-planak dituzte, 2030 Agendaren GJHak kontuan hartuta.

Sektoreak gizarte-ekimenak susta ditzake, toki-erkidegoak inplikaraz ditzake eta elkar-egituraren kohesio handiagoa susta dezake, elkarteen arteko harremanak eta komunikazioa sendotzeko. Era berean, kultura-identitatea sendotu eta enpresa-jarduerak susta ditzakete.

**17. GJH**

Turismoak, sektoreen arteko izaera duenez, elkarrekin publiko-pribatuak sendotzeko eta eragile interesdun ugari –nazioarte-, nazio-, eskualde- eta toki-mailakoak– tartean sartzeko gaitasuna du, elkarrekin lan egiteko, GJHak eta baterako beste helburu batzuk lortzeko

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

GOIEKI eta GOITUR eskualdeko garapen- eta turismo-agentzietan, eskualdeko udalerrien artean elkarlanerako eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzen dira.

Autoebaluazio-irizpideen sistemaren adierazleak (Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI)

17.1. Turismo jasangarrirako proiektuak eta aliantzak	
17.2. Jardunbide egokien trukea	
17.3. Garapen jasangarrian berritzeko lankidetzak	

Gainera, GOITURen turismo-gobernantzako estrategia azpisektoreen mahaien eraketan oinarritzen da, bai eta nazio- eta nazioarte-mailako aliantzen eta sareen parte-hartzean ere.

GOITURek plan pilotu bat jarri du abian Estatuko lehen turismo-helmuga adimenduna izendatzeko etorkizunerako turismo jasangarrirako bidean.



18. GJH*

Helburu horri 17+1 ere esaten zaio; izan ere, Nazio Batuek 2030 Agendaren bidez sustatutako 17 GJHei gehitutako ekimen bat da, eta hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzea du xede.

ESKUALDEAREN EGOERA, HELBURUARI ETA ADIERAZLEEI DAGOKIENEZ

Ekimen honen bidez, honako alderdi hauei heldu nahi zaie, besteak beste: gutxiengoaren hizkuntzak dituzten erkidegoak ahalduntzea eta agerian jartzea, legeria egokia eta estrategia politiko eraginkorrak sustatzea, hizkuntza guztiek hezkuntza-sistemetan presentzia dutela ziurtatzea eta, horretarako, hezkuntza-eredu elebidunak eta eleaniztunak sustatzea, eten digitala murriztea eta, horretarako, hizkuntza guztietan teknologia berrietara jotzeko aukera bermatzea, hizkuntza horiek hedabide guztietan presentzia dutela ziurtatzea eta zerbitzu publikoak berezko hizkuntzetan eman daitezen sustatzea.

Eskualdeko udalek euskararen udal-planak dituzte, euskararen erabilera eta gure hizkuntza eta kultura gizartearen eremu guztietan dagoela ziurtatzeko neurri eta politikak garatzeko.

Hizkuntzaz gainera, kultura udalerrriaren identitatea sendotzeko eta ezagutzera emateko tresna bat da. Helburu nagusiak dira kultura-jarduera sustatzea, kultura-jarduerak antolatzea eta zerbitzuak ematea eta, hala, turismo-eskaintza aberastea. Kultura-eskaintza sendoa eta kalitatekoa izateko, asoziazionismoa sustatu behar da, ezinbestean; izan ere, eremuetatik jasotzen diren ekarpenek sendotu egiten dute kultura interkonektatzen duen sare soziala.

** "Turismo jasangarrirako gida- REDS-RTI" gidaren autoebaluazio-irizpideen sisteman, ez dago helburu horretarako adierazlerik (EAEkoa baino ez da)*

5. PARTE HARTZEKO PROZESUA: ESKUALDEKO ERAGILEEN EKARPENA

DTI metodologiarekin bat datorren GOIERRIKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA (GURA MARKETING enpresarekin elkarlanean egin zen) prestatzeko fasean eginiko parte hartzeko prozesuak bi fase izan ditu:

1. FASEA:

- Online galdetegiak sektorearentzat, udalentsat, intereseko eragileentzat eta herritarrentzat: galdetegi bat jarri da, hiru astez, Goierriko sarearen eta eskualdeko tokiko pertsonen esku, Goierriko turismo-eremuaren inguruko kudeaketari, garapenari, planei, ekintzei eta marketinari eta merkaturatzeari buruz duten iritzia berri izateko eta hura batzeko. 18 erantzun jaso dira.

- Elkarrizketa pertsonalak: elkarrizketa pertsonalak egin dira Eusko Jaurlaritzako Basquetourrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoa Turismorekin eta Donostia / San Sebastián Turismorekin.

2. FASEA:

- Kontraste-saioa: kontraste-saio bat egin da 2023ko urtarrilaren 26an, sektoreko zenbait ordezkariarekin.

1. FASEA

JASANGARRITASUNAREN blokeari dagokionez, honako hauek izan dira **online galdetegiko** emaitzarik esanguratsuenak. Galdetegi jaso dutenei eskatu zaie alderdi bakoitzari 1 eta 5 puntu bitartean (1 puntuaziorik baxuena eta 5 altuena) emateko:

- NATURA-ONDAREAREN KONTSERBAZIOARI, HOBEKUNTZARI ETA LEHENERATZEARI dagokionez: galdetegi bete duten pertsonen ia % 80k uste dute ahalegina egiten dela eskualdeko natura-ondarea babesteko elementuak sustatzeko.
- Eskualdean KULTURA-, HEZKUNTZA- ETA KIROL-ZERBITZU ETA -EKIPAMENDUETARA JOTZEKO AUKERARI dagokionez, hobetzeko tarte nabarmena antzematen da.
- LURRALDE-ANTOLAMENDUARI dagokionez, emaitzak ez dira oso positiboak izan; beraz, arlo horietan hobetzeko beharra ikusten da. Komenigarria izango litzateke lan-ildo horien inguruan zer ekintza egiten diren berrikustea, pertzepzioa erreala den edo hutsa ekintza horien jakinarazpenik egiten ez dela ote den egiaztatzeko.
- MUGIKORTASUNARI dagokionez, batzuek balorazio positiboa egin dute eta beste batzuek neutroa edo negatiboa.
- Galdetegi bete duten pertsonen ia % 50ek 3 puntu eman dizkiote eskualdean INGURUMEN-HOBEKUNTZAREN aldeko apustuari.
- EKONOMIA- ETA GIZARTE-JASANGARRITASUNAREN kasuan, galdetegi bete duten pertsonen % 44k alderdi horiei 2 eta 3 puntu bitartean eman dizkiete.
- GIZARTE-ONGIZATEARI ETA OSASUNARI buruzko puntuan, jasangarritasunaren blokeko gainerako galderetan baino puntuazio altuagoak daude. Eskualdeko gizarte-ongizateko puntuazio positiboak ditu, baina hobekuntza-aukera batzuekin. Osasunaren kasuan, galdetegi bete duten pertsonen % 65ek baino gehiagok 4-5 puntu eman dituzte.

Goierrin jasangarritasunaren eremuan hobetzeko alderdi zehatz eta/edo hobetzeko proposamen/ekintza gisa honako hauek nabarmendu dira:

- Garraio publikoko zerbitzuak hobetzea, bai bisitarientzat bai herriko bizilagunentzat.
- Lurralde-antolamenduaren arloa hobetzea. Horretarako, egokia izango litzateke zer lan-ildotan jardun beharko litzatekeen aztertzea: bizitegi-eremuak, industria-arloak, alde zaharrak, auzoen arteko oreka, berdeguneak, espazio publikoak, landa-ingurunearen eta natura-ondarearen kudeaketa, ibai-ekosistemen leheneratzea, paisaiaren gaineko inpaktuak.
- Tokiko ekonomiaren babesa sustatzea (0 km-ko produktuak eta tokiko turismo esperientziala, erosketa arduratsuak eta abar sustatzea)
- Kultura-, hezkuntza- eta kirol-zerbitzu eta - ekipamenduetara jotzeko aukera hobetzea
- Ingurumen-hobekuntza sustatzea zenbait eremutatik: energia berriztagarrien erabilera, eraginkortasun energetikoa, pobrezia energetikoa, hondakinen kudeaketa, kutsadura akustikoa, hiri-garbiketa, edateko uraren erabilera, isuriak eta arazketa, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak...)

➤ Euskararen erabilera sustatzea.

Parte hartzeko prozesuaren fase honetan, turismo-eragile nagusien ikuspegia, esperientzia eta iritzia eduki nahi izan dira kontuan. Hiru **elkarrizketa pertsonal** egin dira honako pertsona hauekin:

- Lander Imaz: Basquetourreko (Turismoaren Euskal Agentzia) produktu- eta sustapen-teknikaria
- Xabier Eleizegi: Gipuzkoako Foru Aldundiko turismo-teknikaria
- Eider Calderón: Donostia Turismoko zuzendariordea

Elkarrizketa horietan, honako gai hauek aztertu dira:

- Goierriko eskualdea turismo-helmuga gisa.
- Eskualdearen egoeraren balorazioa, DTI batean funtsezkoak diren bost ardatzetan oinarrituta (berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna, irisgarritasuna eta gobernantza).
- Eskualdeko turismo-segmentuen eta funtsezko produktuen eta helmugako turismo-markaren inguruko marketinari buruzko hausnarketa.

DTIren bost ardatzen artean, jasangarritasunaren ardatzari ematen zaio garrantzi gehien; nabarmendu da orain arte zaila izan dela adierazleak, ekintza-planak eta abar izatea, eta horretan aurrerapauso bat eman dela; garrantzitsua da zer norabide hartu nahi den argi izatea. Ardatz horretan jasangarritasun-eremuaren dimentsioari eta hori guztia helarazteko zailtasunari buruz hausnartu da, bai eta sektore pribatuak giza baliabideen mailan duen gaitasunari buruz ere, EAEk duen enpresa-profila kontuan hartuta.

Gainera, turismo-helmuga gisa naturak eta harekin lotutako ekitaldiek –besteak beste, Zegama-Aizkorri mendiko maratoiak– eman diezazkioketen aukerak identifikatu dira. Arrisku nagusi gisa aipatu da beste eskualde batzuk ere egiten ari diren lana, haiek ere natura-turismoko baliabide erakargarriak baitituzte. Azpimarratu da naturan oinarritzen den helmuga jasangarriaren profila Goierriren ardatz eragile gisa. Nabarmendu behar da, natura baliabide nagusia bada ere, Goierri badituela intereseko beste baliabide batzuk ere: gastronomia, kultura...

2. FASEA

2023ko otsailaren 2an, lan-saio bat egin zen, **turismo-sektoreko 9 pertsonarekin**, eta dinamika bat egin zen, DTIren 5 ardatzekin zerikusia duten helmugako indarguneak eta gune ahulak eta hobekuntza-proposamenak identifikatzeko.

Jasangarritasun-ardatzerako jaso diren hobekuntza-proposamenak eta sustatu beharreko puntu positiboak honako hauek dira:

- Eskualdean kultura-ondare ukigarria eta ukiezina babesteko elementuak sustatzea.
- Eskualdean kultura-, hezkuntza- eta kirol-zerbitzu eta - ekipamenduetara jotzeko aukera
- Lurralde-antolamendua (bizitegi-eremuak, industria-arloak, alde zaharrak, auzoen arteko oreka, berdeguneak, espazio publikoak, landa-ingurunearen eta natura-ondarearen kudeaketa, ibai-ekosistemen leheneratzea, paisaiaren gaineko inpaktuak...)
- Goierriko mugikortasuna (oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna, garraio publikoa)
- Ingurumen-hobekuntzaren aldeko apustua Goierriin (energia berriztagarrien erabilera, eraginkortasun energetikoa, pobrezia energetikoa, hondakinen kudeaketa, kutsadura akustikoa, hiri-garbiketa, edateko uraren erabilera, isuriak eta arazketa, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak...)
- Goierriin ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunaren aldeko apustua egitea (tokiko ekonomiaren babesa, 0 km-ko produktuen eta tokiko turismo esperientzialaren sustapena, erosketa arduratsuak...)

Honako hauek dira jasangarritasun-ardatzaren inguruko ondorioak: Goierri ez da uste **helmuga masifikatua denik**, eta, batik bat, naturari eta gastronomiari ematen zaie garrantzia turismo-baliabide gisa. Era berean, **turismoak herritarren zerbitzuetan duen eragin positiboa** azpimarratu da. **Puntu negatibo bat, berriz: establezimendu ugari itxita daude egun eta ordutegi jakin batzuetan eta, hala, mugatu egiten da turismo-jarduera.**

Beldurra antzematen da jasangarritasunaren gai hori alderdi guztietan lantzeko. Ezezagutza eta ziurgabetasuna nabaritzen dira.

6. TURISMO JASANGARRIRAKO ESTRATEGIAK

2030erako Goierriko eskualdearen Turismo Jasangarritasunaren Plan Estrategikoaren edukia zehazteko orduan, abiapuntua 2030. xede-urterako haren funtsezko asmoak ezartzea izan da.

Planaren erronka nagusiak honako hauek dira:

- ✓ Eskualdeko turismoaren ekarpena GJHein bat egiteko bidera zabaltzea: Goierrik Nazio Batuek proposatutako 2030erako helburuak lortzen laguntzea
- ✓ Eskualdearen ingurunea eta kultura-ondarea hobetu eta babestea, trantsizio ekosozial eta klimatikoan oinarritua, eta, horretarako, bisitarien esperientzia eta haien bisitaren ingurumen-inpaktua hobetzea.
- ✓ Turismo-ekintzailtzarako bide ematea, bereziki gazte eta emakumeen artean: lan-merkatura sartzeko bide ematea eta turismo-eskaintzaren jasangarritasunean laguntzea.
- ✓ Inklusioa eta irisgarritasuna kolektibo guztietan sustatzea.
- ✓ Gobernantzako eta elkarlaneko eredu berria sustatzea, erronka berriei erantzuteko.

FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

Eskualderako finkatutako erronketatik abiatuta, **4 helburu estrategiko** (ildo estrategiko) ezarri dira:

1. ILDO ESTRATEGIKOA: ESKUALDEKO EREDU JASANGARRIA SORTZEA, LURRALDERAREN ERALDAKETA OREKATUAN, ERRESILIENTEAN ETA BIOKLIMATIKOAN OINARRITZEN DENA

2. ILDO ESTRATEGIKOA: SEKTOREAN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA BERMATUKO DITUEN ETA HERRITARREN ARTEAN BERDINTASUN- ETA ZAINZA-BALIOAK SUSTATUKO DITUEN GIZARTEA ERAKITZEA

3. ILDO ESTRATEGIKOA: HIZKUNTZA-ESKURAGARRITASUN BERMATZEA ETA ESKUALDEKO KULTURA- ETA TURISMO-ONDAREA BABESTEA

4. ILDO ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZAKO ETA ELKARLANEKO EREDU BERRIA SUSTATZEA, ERRONKA BERRIEI ERANTZUTEKO

PLAN ESTRATEGIKOAREN ESKEMA: ILDOAK - PROGRAMAK - EKINTZAK

Jarraian, ildo estrategikoetan (GJHein lotuta) eta programetan egituratutako ekintza-planaren neurrien eskema jaso da:

1. ILDO ESTRATEGIKOA: ESKUALDEKO EREDU JASANGARRIA SORTZEA, LURRALDERAREN ERALDAKETA OREKATUAN, ERRESILIENTEAN ETA BIOKLIMATIKOAN OINARRITZEN DENA

MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA DESKARBONIZATUA SUSTATZEKO PROGRAMA



- Turismo-eskarira egokitzen den garraio publikoaren zerbitzua izatea.
- Herrigune historikoetan eta merkataritza- edo turismo-eremuetan oinezkoen bideak sustatzea.
- Isuri gutxiko garraio publikoko ibilgailu jasangarrien erabilera sustatzea.
- Eskualdeko zenbait udalerritan errenergia elektrikoko zenbait puntu izatea.
- Ibilgailu pribatuaren erabilera partekatzeko programak abian jartzea.
- Mugikortasun jasangarriko ereduak sustatzea: oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna, garraio publikoa.

AIREAREN KALITATEA ETA KALITATE AKUSTIKOA HOBETZEKO PROGRAMA



- Kiratsari eta osasunaren kalterako guneei irtenbidea aurkitzeko eta airearen kutsadura murrizteko neurriak hartzea.
- Kutsadura akustikoa murrizteko lan egitea.
- Turismo-jardueran jasangarritasun-irizpideak sartzea.

NATURA-ONDAREA, BIODIBERTSITATEA ETA ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK KONTSERBATZEKO PROGRAMA:



- Landa-lurzoruaren eta natura-ondarearen kudeaketa jasangarria sustatzea, antolamendu-tresnen bidez (PTT, HAPO...)

URAREN BALIABIDEA ETA KUDEAKETA JASANGARRIA HOBETZEKO PROGRAMA:



- Ur-horniduraren sisteman dauden galerak diagnostikatzea eta galera horiek murrizteko neurriak hartzea.
- Gainazaleko uren kalitatearen kontrol-sistemari buruzko segimendu bat egitea.
- Edateko uraren erabilera jasangarria bermatzea, uren saneamendu-sarea hobetzea eta isurien gaineko kontrola egitea.
- Baliabide hidrikoen birziklapena eta berrerabilera sustatzea.

AUTOSUFIZIENTZIAN OINARRITZEN DEN TRANTSIZIO ENERGETIKOA SUSTATZEKO PROGRAMA



- Eskualdeko Plan Energetikoan jasotzen diren ekintzak sustatu eta ezartzea eta eskualdeko Energia Mahaia dinamizatzea.
- Goierriko instalazioen kontsumo energetikoen monitorizazioa eta segimendua sustatzea.
- Goierriko instalazioetan aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko neurriak ezartzea.
- Energia berriztagarrien ezarpena eta erabilera sustatzea.
- Goierriin SMART GRID bat sustatzea eta, horretarako, gaian espezializatua den enpresa baten bitartez behatoki bat sortzea.
- Goierriin kalteberatasun energetikoko egoerak diagnostikatzea.

KLIMA-KRISIARI AURREKO EGITEKO NEURRIEN PROGRAMA



- Berotegi-efektuko gasen kontrola egitea eta hura inbentarioan jasotzea, karbono-aztarnaren kalkuluarekin batera.
- Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak hartzea.

TOKIKO EKONOMIA ETA DESKARBONIZATUA SUSTATZEKO PROGRAMA:



- Ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunaren aldeko apustua egitea.
- Lehen sektoreko eta jatetxe-sektoreko ekoizleen, bizilagunen eta bititarien arteko ezagutzarako, harremanetarako eta salmentarako kanpainak sustatzea.
- Jasangarritasunean jardunbide egokiei jarraitzen dieten hornitzaileei eginiko erosketa sustatzea.

HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA EKONOMIA ZIRKULARREAN AURRERA EGITEKO PROGRAMA



- Hondakinen kudeaketa hobetzea eta ekonomia zirkularerako ekimenak sustatzea.
- Elikagaien xahubidearen aurkako neurriak hartzea.
- Turismo-sektorean hondakinak gutxitzeko kontzientziatio-kanpainak bultzatzea.
- Gaika batutako hondakinen birziklapen-ratioa hobetzea.
- Hondakindegiri irregularrak kontrolatzeko neurriak ezartzea.
- Hondakin/zaborren bilketan sentzorizazioa sustatzea.

2. ILDO ESTRATEGIKOA: SEKTOREAN GIZARATERATZEA ETA LANERATZEA BERMATUKO DITUEN ETA HERRITARREN ARTEAN BERDINTASUN- ETA ZAINZTA-BALIOAK SUSTATUKO DITUEN GIZARTEA ERAIKITZEA

PRESTAKUNTZAKO ETA GIZARATERATZEKO PROGRAMA



- Turismo-jasangarritasuneko prestakuntza eta jasangarritasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren inguruko kontzientziatioa sustatzea.
- Turismo-sektoreko enpresen lan-bizitzaren eta familiaren bateragarritasuna sustatzea.
- Gizarte-egoera ahulenean dagoen sektoreko biztanleria laneratzeko prestakuntza eta enpleguaren sorrera bultzatzea.

INTEGRAZIORAKO ETA DESBERDINTASUNAK MURRIZTEKO PROGRAMA



- Etorkinak integratzeko programak sustatzea.
- Etxebizitza babestua sustatzeko politikak bultzatzea.
- Herriko bizilagunek turismo-ekitaldi eta -baliabideetara sarbidea izateko bide ematea eta sustatzea

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKO ERAGINKORREN PROGRAMA



- Sektorean emakumeen lan-baldintzak hobetzeko eta haiek ahalduzko politikak sustatzea.
- Udal-mailako berdintasun-planen ondoriozko ekimen eta neurriak bultzatzea.

3. ILDO ESTRATEGIKOA: HIZKUNTZA-ESKURAGARRITASUNA BERMATZEA ETA ESKUALDEKO KULTURA- ETA TURISMO-ONDAREA PLANIFIKATU ETA BABESTEA

KULTURA-ONDAREA PLANIFIKATZEKO ETA BABESTEKO PROGRAMA



- Eskualdeko kultura-ondare ukigarriaren eta ukiezinaren babesa planifikatzea.
- Kultura-ondarea eta turismo-baliabide gisa duen erabilera babestu eta leheneratzea.

HIZKUNTZA-ESKURAGARRITASUNERAKO PROGRAMA



- Euskararen erabilera sustatzea eta haren balioa nabarmentzea.
- Goierriko hizkuntza-eskuragarritasuna bermatzea.

4. ILDO ESTRATEGIKOA: ERRONKA BERRIEI ERANTZUTEN GOBERNANTZA-EREDU BERRIA SUSTATzea

GOBERNANTZAKO, ELKARLANEKO ETA KOMUNIKAZIO-HOBEKUNTZAKO PROGRAMA



- Eragileen arteko harremana eta elkarlana sustatzea (besteak beste, ikastetxeen eta tokiko elkarten arteko harremana lantzea)
- Sektorean parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko espazio berriak sortzea.
- Kudeaketa gardenean sakontzea eta sektorearen barruan komunikazioa hobetzea.
- Garapen jasangarriko berrikuntzarako elkarlana eta aliantzak sustatzea: esperientzien trukea bultzatzea.
- Belaunaldien arteko topaketarako eta ezagutza trukatzeko espazioak aktibatzea eta haien balioa nabarmentzea.

JASANGARRITASUN-PLANA KUDEATZEKO ETA SEGIMENDUA EGITEKO PROGRAMA



- Turismo Jasangarrirako Planaren berri ematea.
- Jasangarritasun-arloko jarduketa arduradunak argitaratu eta zabaltzea.
- Turismo Jasangarrirako Planaren ekintzak sustatzea.
- Helmugako jasangarritasun-adierazleen sistema bat ezartzea Turismo Jasangarrirako Planaren segimendua egiteko.